

Espedientea / Expediente

2025-058824

Eguna/Fecha:

2025-12-04

Gaia/Asunto:Udako Euskal Unibertsitateari
dirulaguntza izenduna**TXOSTENA****GOBERNU BATZORDEARI**

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) irabazi asmorik gabeko eta Onura Publikoko aitormena duen kultur elkarte da. 1978an sortu zen, Euskal Herrian euskarazko irakaskuntza eta ikerketa sustatzeko helburuarekin. Bere jardunbidean, 47 urte hauetan, unibertsitate gaietarako euskarazko erreferente bilakatu da bai jarduera akademikoan, argitalpengintzan eta IKT alorretan. Bere lan-hizkuntza bai barrura zein kanpora begira euskara da, bere jarduera osoa euskara hutsez burutzen du, beraz, euskararen sustapena eta zabalkundea zientziaren eremuan da UEUren helburu nagusietako bat.

Gizartearentzat lan egiten du elkarlana sustatuz, euskara eta unibertsitatea elkarlotuko dituen proiektuak bideratuz eta euskal komunitate zientifiko-intelektuala trinkotuz. Azken urteetako joerari erreparatuz, ikertzaile euskaldunak inoiz baino gehiago dira, baina haien arteko ezagutza urria da oraindik. Hori dela eta, UEUK ikertzaile gazteengan jarri du fokua, tesia egiten, amaitzen edo doktoratu ostean lanean daudenak bereziki, horiek izango baitira etorkizuna.

Aurrekari horiek kontuan hartuta, UEUK, hainbat erakunderen babesarekin, IkerGazte kongresua antolatu zuen lehen aldiz Durangon, 2015ean arrakasta handia lortuz. Bi urterik behin egiteko asmoarekin jaio zen bilkura, eta orduan lorturiko emaitza onei eutsirik, hurrengo edizioak Euskal Herriko hainbat hirietan burutu dira. Aurten, Bilbon ospatu dute kongresua maiatzaren 28tik 30era bitartean eta bertan, Bilboko Udaleko alkateak sarietako bat banatu zuen.

Ikergazte programaren helburu nagusiak 3 dira: Ikertzaile euskaldunen ikusgarritasuna handitzea, euskarazko zientzia produkzioa areagotzea eta ikertzaileen arteko harremanak sendotzea. Kongresuan 200 ikertzaile euskaldun baino gehiago bildu ziren nazioarteko ikerketen emaitzak aurkezteko. Euskara da bai ikerketen eta baita kongresuaren hizkuntza. Kongresuaren ondoren, ikertzaileen artikulak 5 liburu digitaletan jaso dira.

Udaleko Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailak euskararen erabilera areagotzeko xede duten mota askotako ekimenak bultzatu nahi ditu etengabe, euskarari espazioak zabalduz eta arnasguneak sortuz urian bertan. Sailak herritarren egunerokoan, lanean, eskolan, ikerkuntzan edo aisialdian euskara bizirik egotea ahalbidetuko duten proiektuak bultzatu nahi ditu eta horretarako tresna du Bilboko AROA Plan Estrategikoa 2025-2035.

Honako taulan jasota dago dirulaguntza izendun hau AROA Planaren ardatz estrategikoetan, erronketan, lan-ildoetan, ekimenetan eta ekintzetan nola kokatzen den:

2. ardatz estrategikoa: Jarrerak / Motibazioa
Erronka: JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.
Lan-ildoak: JM.2.2. Euskararen erakargarritasuna landu.
Ekimena: JM.2.2.4. Euskara eguneroko bizitza garaikidearekin eta gizarte aurreratuarekin lotu.

Programaren helburuak Bilboko Udalaren helburuekin bat etorritik, Udalak programa hau sustatu nahi du.

Ikergazte Kongresua 2025eko maiatzean egindako ekimena da eta dirulaguntza izenduna horren ondoren bideratu da. Hori dela eta, programa justifikatu behar izan da ordainketa egin aurretik eta, aurkeztutako dokumentu eta fakturak aztertu ondoren, justifikatutzat eman dira 85.252,24 euro.

ONARRI JURIDIKOAK

I.- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 artikulua hau dio:
“Zuzenean dirulaguntza hauek eman daitezke:

“Estatuko, autonomia erkidegoetako edo tokiko erakundeetako aurrekontu orokorretan izenez aurreikusitakoak.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, Estatuaren Aurrekontu Orokorretan izenez aurreikusitako dirulaguntzak dira gutxienez aurrekontu-dotazioa eta onuraduna aurrekontuaren gastu-orrietan adierazita dauzkatenak. Dirulaguntza horien xedea berariaz adierazi behar da lankidetzaren hitzarmenean edo emakidaren ebazpenean; betiere, bat etorri behar da aurrekontu-kredituaren sailkapen funtzional eta ekonomikoarekin”.

Goian adierazitakoaren arabera, dirulaguntza hau Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailaren aurrekontuaren exekuzioan sartzen da, 2025eko aurrekontuaren dirulaguntza izendunaren eranskinean. Eranskin horrek zenbait dirulaguntza-lerro dauzka, besteak beste:

PEP	PEP izena	Onuraduna	Organikoa	Funtzionala	Ekonomikoa	Zenbatekoa
2025/00408	Ikergazte 2025	G48218416- Udako Euskal Unibertsitate a	13010	33510	4819970	6.500,00 €

Dirulaguntza hori gauzatzeko, Bilboko Udalak 2025eko maiatzaren 29ko osoko bilkuran onartu zuen 2025ko udal aurrekontuaren bidez, entitate horri dirulaguntza izenduna ematea onartu zen.

II.- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 28. artikulua arabera, *“zuzenean dirulaguntzak bideratzen dituzten emakiden ebazpenek eta hitzarmenek aplikatu beharreko baldintza eta konpromisoak ezarriko dituzte, lege honetan xedatutakoaren arabera. Hitzarmenak izango dira Estatuaren edo tokiko korporazioen aurrekontu orokorretan aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresna, erakunde bakoitzaren araudi erregulatzaileak gaiak agintzen duena baztertu gabe”.*

III.- Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 14.e) artikularekin bat etorritik, dirulaguntzen onuradunek dauzkaten betebeharrak bat da *"zergen betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkatela frogatzea, emakidaren ebazpen-proposamena eman baino lehen"*.

Ondorio horietarako, Udako Euskal Unibertsitateak honako agiri hauek aurkeztu ditu: zergen betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria, eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta martxoaren 16ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen 1/2023 legegintzako dekretuaren 23.2 artikuluan aipatutako debekuetatik bat ere ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, Udako Euskal Unibertsitateak ziurtatu du ez daukala zorrik Udalarekin edo beste batzuekin; zorren bat edukitzeak arriskuen jarriko lukeelako dirulaguntzaren ordainketa.

Ondorioz, honakoa aurkezten zaio Gobernu Batzordeari:

ERABAKI PROPOSAMENA

Gobernu Batzordeak, Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailak proposatuta, honakoa **ERABAKITZEN DU**:

BAT.- Udako Euskal Unibertsitateari (IFZ: G48218416) dirulaguntza izenduna ematea, 2025ean Bilbon *"Ikergazte 2025 Nazioarteko ikerketa euskaraz"* programa egin izanagatik.

BI.- Entitate horren aldeko gastua baimendu eta xedatzea, 6.500,00.- eurokoa, 2025eko aurrekontuko 2025 13010 33510 4819970 partidaren kontura.

HIRU.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Bilbon, 2025eko abenduaren 4an

PROPUESTA DE ACUERDO

La Junta de Gobierno, a propuesta del Área de Euskera, Atención y Participación Ciudadana, Agenda 2030 e Internacional, **ACUERDA**:

PRIMERO.- Conceder una subvención nominativa a Udako Euskal Unibertsitatea (NIF G48218416), por haber llevado a cabo en Bilbao el programa *"Ikergazte 2025 Nazioarteko ikerketa euskaraz"*.

SEGUNDO.- Autorizar y disponer el gasto correspondiente, a favor de la citada entidad, por importe de 6.500,00.- euros, con cargo a la partida 2025 13010 33510 4819970 del presupuesto del 2025.

TERCERO.- Notificar la presente resolución a los interesados.

Bilbao, a 4 de diciembre de 2025

EUSKARAKO ZUZENDARIA

OE
EUSKARAKO, HERRITARREN ARRETA
ETA PARTAIDETZAKO, 2030 AGENDAKO
ETA NAZIOARTEKO GAIETAKO SAILEKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

